

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onestea udalaren landa ondasun higiezinaren luberritze tasaren 2021eko zerga errolda

Nik, José Ramón Molinuevo Lañak, Amurrioko (Araba) Udaleko alkateak,

Jakinarazten dut:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko maiatzaren 27ko bilkuran, udalaren landa ondasun higiezinaren luberritze tasaren 2021eko zerga erroldari behin-behineko onespena eman zion. Onespen erabaki horren berri (2021/2/S106 espedientea) 2021eko ekainaren 11ko ALHAOn (64. zenbakia) eman zen. Erabaki horren aurka inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtu eta jendaurrean jartzen da, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98.3 artikuluan xedatutakoak betetzeko.

2021eko azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, gorago aipatutako errolden ordainagiriak.

Ordainagiriak helbideratuta ez dituzten zergadunek udaletxeko kutzazain automatikoan eta euskal administrazioaren ordainketa pasabidean ordaindu ahal izango dituzte zerga zorrak. Horretarako, udalaren web orrira jo beharko dute (<http://amurrio.eus/es>), "Nire ordainketa" aukerara.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Zerga Bilketarako Araudi Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritz; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2021eko uztailaren 9a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA